



BARREN
TOKIKOM

Ilusioa berreskuratuta





Maria Zigorraga Lete

2022ko urtarrilaren 22an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Pertsona umila, alaia,
argia eta eskuzabala;
seme-alaba, biloba ta lagun artean
izan zara espeziala.
Urteak gogor eta hotz jo gaitu
hasi eta berehala...
Jakin gure bihotzetan beti
bizi izango zarela.*

Etxekoak



Julia Ansola Zigorraga

2022ko urtarrilaren 23an hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.



Manuel Zulaika Gisasola

Bartzelonan hil zen 2022ko urtarrilaren 16an, 92 urte zituela.
Haren oroimenezko meza domekan, urtarrilaren 30ean, izango da,
11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

***Zure umore onak eta 'Boga-Boga' abestiak, besteak beste,
alaituko du eta gozatu, zauden 'paradisua'.***

Arrieta-Soraiz familia



Ramon Larrañaga Zubizarreta

"Aldapa"


2022ko urtarrilaren 25ean hil zen, 90 urte zituela.

*Aldapa basarriko maiorazkua.
Basarrixa maite zendun ganaduzalia.
Lagunen laguna, hasarriaren etsaixa.
Auzuan eta herrixan maittatua.*

*Amaren onduan bizi izan ziñan beti
eta amaren ondora zuaz betiko atsedena hartzera.
Aitta eta anaixa ere zain izango dittuzu.*

Berriz ikusi arte, Erramun.

Etxekoak





JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Eusko Jaurlaritzaren lentea

ituratzen ere, nahiz eta sekulako baliabideak dituzten argazki makinaren programa manipulatzeko, eta automatikoa zein manuala nahierara erabiltzeko. Izan ere, denbora luze daramate ofizioan klik-klik egiten, argazki onak erakusten, eta inguruko txar guztiak Photoshoparekin txukuntzen, eta ezkututzen. Horretarako dituzte komunikabide gehienak prest fokuratze hurbiltzeko, edota urruntzeko, eta gustukoak koloretan aukeratzeko. Irudikatzen duzue zer nolako tratamendua izango zuten beste batzuekiko pandemia sasoiaren boterean izanez gero? Gainera, zertarako aldatu lente-irekidura, eremu-sakonera, argazki guztiak eginak badaude, eta orain arteko argazkiak, edozein direlarik ere,

jende askok gogoko baditu? Alabaina, ezin gara beti etsipenak jota bizi. Ezin dugu beti odol gaiztorik egin. Inoiz olatuak indarra galduko dute, eta positi- boen kopurua txikiagoa izango da. Inoiz osasun sistema publikoan lanerako jende asko falta zutela gogoratuko gara, eta COVID-19ak eragindako sintomak izanda Osakidetza deitzen ez bagenuen, ganorabakoak izatetik auto-testetan, auto-diagnostikoan, auto-zaintzan... arituak izatera pasatu ginela gogoan izango dugu. Inoiz... bizi izanikoa amets bat izan zela irudikatu dugu, baina hori bai, hildakoen familiakoez, eta kale gorrian gelditutakoez, inoiz ez dute ahaztuko bizi izaten ari garen infernu gaizto honek zer nolako tamaina hartu zuen.

Ni ez naiz oso aritua argazkigintzan, baina azken bolada luze honetan (erraz esaten da, baina laster bi urte izango dira txaloak jotzen genituenetik) Eusko Jaurlaritzakoek egindako argazki asko mugituta daude, ene ustez. Arituek esango luketen moduan, "zarata" handia dute, hots, kalitate txikia. Halarik ere, ulertzekoa da. Egoera gaizto honek ez die bat ere laguntzen gustuko argazkia patxada ederean egiten, ezta gaizki egindakoa

"Denbora luze daramate ofizioan klik-klik egiten, argazki onak erakusten, eta inguruko txar guztiak Photoshoparekin txukuntzen eta ezkututzen"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ AURTEN ERE EZ GARA ZUENERA JOANGO!

Aurten ere ez gara Elgoibarko baserri-auzoetara joango otsailaren 4an. Aurten ere ez gaituzue zuen baserrietako atarrietan ikusi eta entzungo. Aurten ere ez gara Aiastiako soziedadean afaltzeko bilduko. Iaz, pena handiz, 27 urteko tradizioa eten behar izan genuen pandemiagatik, eta aurten, zoritxarrez, beste horrenbeste egin beharko dugu. Aurten ohitura zaharrarekin berriz ere gozatzeko moduan izango ginela uste genuen, baina bizi dugun osasun egoerak aurten ere baserrietara ez joateko eskatzen digu.

Pena ematen digu, handia gainera, baina horrelakoetan osasunak tradizioaren aurretik egon behar du ezinbestean. Ez dugu arriskurik hartuko.

Ondo bagara, datorren urtean berriz ere bueltatuko gara zuengana. Otsailaren 4an izango da, Santa Ageda bezperan. Kalegoen plazan bildu eta gustura hartuko ditugu baserri-auzoetako bideak. Ederra izaten delako zuen etxe atarrietan bildu eta kantuan jardutea. Zuen aurpegiak ikustea. Egiten diguzuen harrerarekin gozatzea. Masailean behera malkoren bat edo beste sentitzea. Egiten duguna estimatzen duzuela sentitzen dugu, eta ohitura zaharrari eusteko asmoa daukagu, zuek nahikoa dela esaten ez diguzuen artean. Beraz, eutsi bizipozari eta ea datorren urtean elkarrekin izaten garen!

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

▶ URTARRILAREN 29AN BILBORA!

Urte berriarekin batera, hitzordu garrantzitsu bat dugu urtarrilaren 29an. Indarrak batu eta azken urteetako ofentsibari aurre egiteko unea da, ezarritako neurri bidegabeak salatu eta erantzuleak seinalatzeko momentua.


Gazte langileon egoera etengabe okertzen ari da. Soldata baxuen truke lan egiten dugu, praktika kontratu negargarriekin, aste gutxi batzuetako edo hilabeteko aldi baterako kontratuekin, ordu estrak sartuz eta behin baino gehiagotan ordaindu gabeko lanorduak betez. Aurrezteak, egonkortasun minimo bat lortzea edo etorkizunerako planak egitea ezinezkoa da egungo baldintza ekonomikoekin. Argindarraren prezioa markatik markara dabil, gurasoen etxetik joan ahal izatea ia ameskeria da, autoa hartze hutsak bidesarien eta gasolinaren beldurra dakarkigu, platera betetzea ere garestitu da... Bizitza bera, geroz eta garestiagoa da, eta gu geroz eta pobregoa. Eta horrek, bizitzako esparru guztietan eragiten digu; harremantzean, osasun mentalean, bizi ohituretan zein kontsumitzen dugun aisialdian.

Pandemiak, aldaketa ekonomiko eta sozial horien atzean dagoen krisia areagotzea ekarri du; areagotzea eta azalera. Azken bi urteetan ezarritako neurriak pandemiari aurre egiteko neurriak direla sinestarazi nahi izan digute, baina denborak aurrera egin ahala agerian gelditu da ziklo

ekonomiko berri baterako moldaketa eta berregituraketa fase baten gaudela. Alarma egoera ezarri zenean GKSek egindako irakurketetan adierazi zen bezala, bankari eta enpresari handien partetik ezarritako ofentsibak kontrol sozialean eta sumisioan oinarritutako gizartea du helburu, pobrezia orokortzea eta eskubideen urraketan normalizazioarekin batera. Basakeria honi aurre egiteko, politikari profesionalek ez dute inolako proposamen errealik plazaratu; miseria kudeatzera mugatu dira.

Horregatik, bakoitzak bere arazoak izanda ere, gure kabuz antolatu eta eskubide kolektiboak defendatzea dagokigu. Gazteok batzeko eta mobilizatzeko garaia da; arazo pertsonal modura baino, egunerokoan bizi duguna modu orokor batean ulertuta eta borrokatuta soilik lortuko baitugu dakarkiguten basakeriari aurre egitea. Testuinguruak lerratzea eskatzen du, datozen aldaketak pairatuko ditugunoi bi aukera baino ez baitzaizkigu agertzen: dagoena onartzea edo borrokara batzea. Urtarrilaren 29an Bilbon ikusiko dugu elkar.

Gazte Koordinadora Sozialista



**Edurne
Zabaleta
Ojanguren**

2022ko urtarrilaren 24an
hil zen, 95 urte zituela.

**Agur Edurne, lagun kuttuna,
albistea ze iluna,
denontzat dator azken batean,
bidaiarako eguna;
baina gurekin izango dugu
zenuen argitasuna,
pertsona ona eta alaia,
tori gure maitasuna,
ta familiak jaso dezala
bero ta alkartasuna!**



14.890.565 euroko aurrekontua onartu du Mankomunitateak 2022rako

Debabarreneko Mankomunitateak 14.890.565,16 euro izango ditu aurtengo jardunerako, iaz baino %2,66 gehiago. 9.196.621,51 euro hiri-hondakinak gaika biltzeko zerbitzura bideratuko ditu (iaz baino 68.254,53 euro gehiago), eta gainerako 4.252.587,65 euro kale-garbiketarako izango dira (iaz baino 177.744,55 euro gehiago). Inbertsioen atalera 1.376.142 euro bideratuko ditu, batik bat, baliabide materialak hobetzeko. Herritar bakoitzeko, beraz, 185,44 euro inbertituko ditu Mankomunitateak aurten. Josu Arraiz Mankomunitateko presidentek azpimarratu du "ahalegin berezia" egin dutela "zerbitzuen kalitatea hobetzeko, eskualdeko birziklatze-datuak hobetzen jarraitzeko". Era berean gaineratu du, aurrekontua osatzerakoan euren helburua izan dela Mankomunitatea osatzen duten Udalen kuotak mantentzea edo ahalik eta gutxien igotzea.

Sarreretan, aurten, 843.502 euro aurreikusitakoak izango dira, iaz baino 37.641 euro gehiago. Igoeraren arrazoi nagusia Saica Natur Norte SL enpresarekin papera eta kartoia saltzeko duen kontratua dela azaldu du. Azkenik, gastuen atalean, kopururik handienak dira langileen soldatak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak fakturatutako hondakinen alta.

Covid ziurtagiriaren kontrako elkarretaratzea egin zuten barikuan, Kalegoen plazan



Iratzargailua taldeak deituta, hainbat herritar batu ziren bariku iluntzean Kalegoen plazan, Covid ziurtagiriaren derrigortasunaren aurka protesta egiteko. Iban Muruak hartu zuen hitza Iratzargailua taldearen izenean, eta taldea aurkeztuz hasi zuen berbaldia. Elgoibarko eta Mendaroko herritarrek sortu dute taldea, "informazioa zabaltzeko". Telegram doako albistekanallean Iratzargailua izenarekin kanala ireki dute, eta edonork hartu dezake parte. Taldea iritzi eta ideologia askotariko jendez osatua dagoela zehaztu zuen, txertatuak eta txertatu gabekak daudela taldean, eta batzen dituen elkarrekiko errespetua dela: "Argi daukaguna da ziurtagiria herritarrek kontrolatzeko sortu den neurri diskriminatzailea dela, osasunarekin zerikusirik ez duena; agintarie gure osasuna ez zaie batere axola".

Txertaketari buruzko hitzaldia bihar, Maalako parkean

Iratzargailua taldeak antolatuta, Covida izango dute hizpide bihar, Maalako parkean. Juanjo Martinez medikuak emango du hitzaldia, eta besteak beste, txertaketari buruz jardungo du. Txertaketa da bide bakarra? adin gabeak txertatzea beharrezkoa da? Estilo horretako galderak argitzen saiatuko da. 12:00etan izango da hitzaldia, Maalako parkean.


Bosko Eguneko zozketa egin dute

Batxilergoko bigarren mailako ikasleek zozketa egin dute Bosko Egunaren harira. 12353 zenbakia izan da sariduna (Ordezkoak: 17349 eta 3121). Irabazleak urtarrilaren 30era arteko epea dauka saria jasotzeko, bestela ordezkoengana joko dute. Irabazleak elgoibarbhifak@gmail.com helbidera idatzi behar du. Doña Mercedes, Ziarda harategia eta Esclusivas Gorlak emandako produktuz osatutako otarra da saria, eta antolatzaileek eskerrak eman dizkiete euren laguntzagatik.

Kalamuako lur sailetan bost hektarea erosi ditu Udalak

Bost hektarea inguruko lursaila erosi du Elgoibarko Udalak Kalamua mendian, gailurrak eta bere inguruak duen paisaia, arkeologia eta natura-ondarea zaintzeko. Elgoibarko Udaleko arduradunek azaldu dutenez, Kalamua mendiaren gailurra zuhaitzik gabe egon da denbora luzean, eta hala, gailurretik dagoen ikusmira trabarik gabe ikusteko aukera dute mendizaleek. Era berean, erositako lursailen 36ko gerrako frontearen aztarnak daudela zehaztu dute, lubaki bat, hain justu ere. Horrez gain, Memoria Historikoaren Elgoibarko Ibilbidea lursail horretatik igarotzen da. 2017an Moru mendiko lursailak ere erosi zituen Udalak, besteak beste, Moru mendia eta bertan dagoen burdin aroko herrixka berreskuratzeko. Guztira, lau hektarea inguru erosi zituen Udalak Morun. Ondoren, pinuak bota eta bertako zuhaitz espezieak landatu zituen, eta "hainbat industria arkeologiko ere egin dira bertan".

Plano turistikoa argitaratu du Elgoibarko Udalak




Elgoibarko 675. urteurrenaren prestaketako proposamen baten harira, Elgoibarko Udalak plano turistikoa argitaratu du estreinakoz. Herriko monumentuak, eskulturak, baselizak, bidezidorrak eta gainerako informazio turistikoa interesgarria ezagutaraztea da helburua. Planoa turistentzat pentsatuta dago eta atzeko aldean monumentuen ezaugarri garrantzitsuenak jasotzen ditu. Hala ere, QR bidez informazio zabalagoa Udalaren webgunean eskura daiteke. Dolmenen Ibilbidearekin ere gauza bera egin dute.

Ane Beitia alkateak azaldu duenez, "mimo eta dedikazio handiz egindako lana da. Monumentuak planoan ilustratu dira emaitza artistiko eta erakargarria eskainiz, mapako osagai guztiak era bisualean eta dibertigarrian ikusteko aukera emanez".

Lan honek Elgoibarren 2021eko udan estreinatu zen bisita autogidatua osatzen du. Herriguneko hainbat tokitan jarri ziren panelak bidez, XIV., XV. eta XVI. mendeetan izandako historia eta aldaketak kontatzen ditu. Paneletan herriko planoak daude, eta QR bidez, idatzizko testu eta audioa jasotzeko. Planoak Herriarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta herriko ostatueta ipiniko dituzte eta turistek ez ezik, herritarrek ere jasotzeko dituzte.


Lapurretan egin dute IMHko tabernan



Zapatuan, gauerdia pasatu berrikan, IMH tabernan sartu ziren lapurrak. Alarma jo eta segituan bertaratu baziren ere, ordurako alde eginak ziren. Tabernatik azaldu dutenez, inguruko estolderia bateko tapakia erabili zuten tabernako atean zuloa egin eta barrura sartzeko.

Abian da Mendaroko ondare geologiko, espeleologiko eta arkeologikoa ezagutzera emateko egitasmoa

Mendaro herria ezagutzen proiektuan sakontzeko helburuarekin, herriko ondare geologiko, espeleologiko eta arkeologikoa ezagutarazteko egitasmoa prestatu du Arno Guraso Elkarteak. Beren esanetan, baloratuko badute, inguruan dutena ezagutu behar dute eta kirolaren, historiaren nahiz zientziaren inguruko ezagutzatik gerturatuko dituzte inguru naturalera. Lehenengo ekintza, bihar, urtariraren 29an izango da, Trinitate baselizan, 18:30ean. Leizarpe taldeko Evaristo Rodriguezek *Piedra y agua. Otra visión de Mendaro* hitzaldia egingo du gaztelaniaz. Hitzaldia gaztelaniaz izango da, eta Mendaroko kobazuloen irudi eta planoak ikusteko aukera izango da. Ikasturte an barrena ekintza gehiago izango dira: teknika bertikalen saioa, Eskola Kirolaren barruan; Arkeologia esperimentalari buruzko saioa umeentzat, ingurune naturalean; Kilimon bailara eta Kilimon errearen ezaugarriak ezagutzeko irteera; eta Elgoibarko Hezur Museora eta Fosilen eta Mineralen Museora bisita.



**Depilazio
hoberenerako,
espezialistak
onenak**

Hizkuntza hartzeko
646 563 706

Hiru sistema batean

TR-PHASE

Neodimioa
Eraginkorra ile ilunean,
azal argian edo
gastaino-kolorekoan

Diodoa
Eraginkorra ile finetan
eta larri oso
beltzarenetan

APL
Eraginkorra da mota
guztietako ileetan eta
beltzaren eta gabeleko
lanuzketan

Urriaren 9. bisita - Elgoibar - www.kimabizestesia.wedkoibarko.com

Hemendik aurrera Toletxe etorbidea izena edukiko du Pedro Mugurutza kalea izan denak

Elgoibarko Udaleko Bizikidetza Batzordeak bultzatutako partaidetza-prozesu baten bidez Pedro Mugurutza kaleari izena aldatu diote. Herritarrek boto bidez aukeraketa egin dute eta urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran onartuta Toletxe etorbidea izango da aurrerantzean Pedro Mugurutza kalearen izena.

Eusko Jaurlaritzan idazten ari den memoria demokratiakoaren legea dela eta, Elgoibarko kale-izendegia eguneratzeko beharra zegoen, erregimen frankista goraiatzearekin zerikusia duten pertsona edo ekitaldien izenak kenduz, Pedro Mugurutza garai hartako arkitekto eta erregimenaren kongresuko legebiltzarkidea izanik kentzeko beharra ikusi zuten Udalean.

Udalak irailean abiatu zuen partaidetza-prozesua. Izen-proposamenak aurkeztu eta azterketa tekniko bat egin ondoren, Bizikidetza Batzordearentzat bideragarriak izanik Elgoibarko kale-izendegian parte hartzeko baldintzak betetzen zituzten aukerak bozkatu zituzten herritarrek.

Herritarren parte-hartze aktiboak erraztu duen bozketan hamar izenen artean aukeratu zuten herritarrek eta honakoak izan ziren aukerak eta jaso zituzten boto kopurua: Toletxe, 447 boto; Martxoaren 8a, 144; Artetxebide, 82; Askatasunaren hiribidea, 29; Eguzkilore hiribidea, 27; Memoriaren hiribidea, 21; Makina-erremintaren etorbidea, 18; Euskal Herria, 17; Erraketistak, 9; eta Arkitekto onen etorbidea, 7.

Guztira 827 elgoibartarrek hartu dute parte bozketan, gehiengoak sare bitartez (718 galdetegi) eta gainontzekoak Herritarrei Arreta Emateko Bulegoan (110). Hala ere, hainbat galdetegi ez dituzte onartu Elgoibarren erroldatu gabeenak zirelako edo errepikatuta zeudelako. Beraz, 812 galdetegi onartu dira guztira. 377 gizonen



eta 447 emakumek hartu dute parte, 524k euskaraz eta 304k gaztelaniaz.

San Lazaro egoitzan

10 koronabirus kasu berri azken astean

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, 381 koronabirus kasu berri baieztatu dituzte Gipuzkoako adinekoen egoitzetan, urtarrilaren 17tik urtarrilaren 25era bitartean. Horietatik, 10 Elgoibarko San Lazaro egoitzan atzeman dituzte eta gaitzaren eraginez egoiliar bat hil da. Aurreko astean, 25 ziren gaitzaz kutsatuak, eta beste bat hil zen. Une honetan 14 egoiliar daude koronabirusaz kutsatuta San Lazaron eta sendatu berriak, berriz, 20 izan dira azken aste honetan.

EXPRESS ESKAINTZAK!

WHIRPOOL TDLR 6230 S SP/N GOITIK BETETZEKO GARBIGAILUA

349 €



- **6th Sense:** Pisuaren araberako uraren, energiaren eta denboraren kontsumoa.
- **FreshCare:** Arroparen freskotasuna zaintzen du.
- Hasiera atzeratua.
- 6 kg-ko karga.
- Zentrifugatze-abiadura: 1.200 bira/minutuko.



(7 kg-koa ere aukeran. E energia-mota (TDLR 7220 SS AP/n), 379 €)

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Hasi dira Mendaroko tren geltokian oinezkoen pasabidea eraikitzeko lanak



Mendaroko tren geltokia konpontzeko obrak hasi dituzte eta egingo dituzten lanen berri emateko herritarrekin bilera izan dute asteon Euskal Trenbide Sareko ordezkariak. Bilbo-Donostia linean egingo dituzten lanekin Mendaroko geltokiko trenbidea modernizatzea eta nasen arteko trenbide-pasagunea kentzea dute helburu.

Orain trenbidean dagoen pasabidea kendu eta ordezkatzeko alde banatan igogailuak ipiniko dituzte eta bien artean oinezkoentzako gaineko pasabidea eraiki. Bestalde, trenbide zati bat berritu egingo dute, izan ere, materiala zaharkitua dago. Horretarako hormigoigoi armatuzko eta aurrez atezatutako trabesa blokebakarren gainean soldatutako errail jarraituak ipiniko dituzte. Erdiko nasen ere ia metro bat zabalduko dute.

Lan batzuk gabez egin beharko dituzte, trenik ez dabilenean, beraz, egun batzuetan zarata egon daitekeela jakinarazi nahi diete herritarrei, gainontzean, herrian ez da beste trabarik izango obra hauen harira. Lanak egiteko urtebeteko epea dute, hortaz, aurreikusitakoaren arabera 2023 hasierarako geltokia berrituta izango da.

PSE-EEK zehaztu du Covid funtsetik 404.233,83 euro jasoko dituela Elgoibarko Udalak

Joan den astean jakinarazi genuen Elgoibarko Udalak 392.903 euro jasoko dituela Covid funtsetik. Ariana Nogales Elgoibarko Udaleko bozeramaile sozialistak, ordea, azaldu du, Espainiako Gobernuak 1.964.839,15 euro banatuko dituela Debabarreneko udalerrien artean pandemiak eragindako "kalte ekonomiko eta sozialak konpontzen laguntzeko" eta horietatik 404.233,83 euro izango direla Elgoibarrentzat. Izan ere, aipatutako kopuruaz gain, beste 11.330,83 euro jasoko ditu. Estatuko zergetan parte hartzeko diru kopuruak igoera handia izan du, eta hori "mugarri" bat dela dio Nogalesek. "Diru hori, Pedro Sanchez Gobernuak presidentek hitzeman zuen udalerriari emango zitzaizela Udalen beharrei aurre egiteko eta herritarren bizitza hobetzen laguntzeko". Nogalesen ustez, "laguntzak oso beharrezkoak dira, batez ere Udalarentzat herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, ongizate arloan oinarritzko zerbitzuak ematen ditugu, eta laguntza ekonomiko horiekin udal-zerbitzu publiko hobekia eman ahal izango ditugu, herritarren bizikaltatea hobetzeko".

Mendaroko Gabon kanpainako zenbaki sarituak jakinarazi dituzte



Pasa den ostiralean egin zuen Mendaroko Udalak Gabon Kanpainako sariaren zozketa San Agustin Kulturgunean, eta Juan Jose Reyk irabazi du 1.000 euroko balioa duen produktu sorta. Gainontzekoek 400 eurokoa jasoko dute. Hauek dira zenbaki sarituak: 8466 (ordezkoak: 9378 eta 5869); 7572 (ordezkoak: 989 eta 8153); 2645 (ordezkoak: 8673 eta 9852); eta 4 (ordezkoak: 5866 eta 7841). Sariak udaletxean jaso beharko dituzte zenbakien jabeek.

'Suharra' dokumentala zapatuan, Aita Agirre Kultur Kafean

Gure lurretako ganadu suharren historia kontatzen duen *Suharra, gure arbasoen ondarea* dokumentala eskainiko dute bihar, zapatua, urtarrilaren 29an Aita Agirren, 18:00etan. Iñaki Agirrezabalaga zumaiarrak zuzen du duen dokumentalak galtzeko zorian dauden Euskal Herriko behi-arrazen inguruan hitz egiten du, baita galtzeko zorian dagoen baserriko bizitzaz ere. Dokumentalean hainbat ganadutegitako testigantzak jaso dituzte, besteak beste, jaietan sokamuturrera ganaduak ekartzen dituen Arno eta Elgoibarko Ruso ganadutegitakoak.



Jose Ramon Cabrera

Iñaki Goitia



spiluak ez dira isla itzultzen diguten bakarrak; putzu, urmael, laku edota funtsean ura duten objektuek, halaber, ispilu lana egiten dute. Kristalak berak, noiz edo noiz, eginkizun bera izan ohi du. Hala gertatzen da, esate baterako, trenean goazela gautu egiten duenean.

Eta horrela, aurrean daukagun hala-nolako ispilu antzeko horrek bueltatutako aurpegieraz berehala gogaitzen garenez -Nartziso bezala izendatuak izan ez bagara, bederen-, beste bidaiarien irudiei erreparatzen diegu. Gure espiritua elikatze aldera, sinistu nahi du batek.

Zuzenean beraien aurpegiak begiratzea ere badago, noski. Baina errealitateaz akiturik, edo izatez zein egitez, nahiko koldarrak garenez, nahiago izaten dugu zeharka begiratu, bigarren mailako voyeur miserable bat bagina bezala. Horrela errazago

zaigu besteen bizitzak erakitzea, edo hondatzea, bakoitzaren apetaren arabera; honi maitale bat asmatu, hari gizateriaren aurkako krimenen bat leporatu, edonori ekintza higuigarriena egotzi... Jainko izatetik hurbil sentitzen da gizakia makina bat aldiz; Jainko bihozgabe bat, normalean, baina Jainkoa, azken finean.

Alabaina, Jainkoak deabrua omen dakar berekin, egunak gaua eta gauak eguna dakarren bezala, askatu ezinezko zein betiereko dualismo batean. Eta gutxien espero dugunean hor azaltzen zaigu deabrua, gure begiradan islatua, kristalean islatua, bidaiari baten begi-kolpean islatua. Izan ere, Jean Paul Sartrek idatzia utzi zuen bezala, "infernua besteak dira", besteen begirada gudan iltzatzen denean, subjektu sortzaile bat izatetik sortu den objektu izatera pasatzen garelako. Momentu horretan bertan maitale bat izatera, gizateriaren aurkako krimenen bat egitera edo ekintza higuigarriena burutzerara pasatzen garelako. Zeharka bada ere.

"Nahiko koldarrak garenez, nahiago izaten dugu zeharka begiratu"



► ZIGOR ESNAOLA

ALCORTA FORGING GROUP TALDEKO ENTRENATZAILEA

Alcorta Forging Group Sanloko senior gizonezkoen taldeko entrenatzailea da Zigor Esnaola (Elgoibar, 1972), eta azken bi denboraldi kaskarren ostean, badirudi aurtengoan iravliko dutela joera hori. Izan ere, bukatu berri da aurtengo denboraldiko lehenengo fasea, eta Alcortak ez du partida bat bera ere galdu. Ilusioz eta itxaropentsu daude entrenatzaile zein jokalaria, eta aurtengo helburua lortuko dutela espero dute: igoera faserako sailkatzea dute helburu, eta ahal bada, mailaz igotzea, jakina. Esnaolak bigarren entrenatzaile modura jardun du azken urteetan Gojko Vucinic-ekin, eta hura hil ostean hartu zuen taldearen ardura.

- AINHOA ANDONEGI -

“Mailaz igotzea izango litzateke Vuchy-rentzat omenaldirik onena”

◆ Noiz iritsi zinen Sanlora?

Niri betidanik gustatu izan zait eskubaloia, eta 14-15 urte nituela hasi nintzen jokatzen. Garai hartan Elgoibarren ez zegoen eskubaloit talderik, eta Eibarren hasi nintzen. 20-21 urte bete nituen arte ibili nintzen Eibarren, baina ordurako Sanlo martxan zegoen, eta Elgoibarrera etortzea erabaki nuen. Zortzi bat urtez jardun nuen jokatzen, eta 29 bat urterekin laga nion jokalaria izateari. Atsedena behar nuen. Urte asko eman nituen jokatzen, eta burua beste gauza batzuetan jarri behar nuen. Entrenatzaile izateko aukera eskaini zidan Sanlok, baina une hartan ezetz esan nuen; eskubaloitik deskonektatzea behar nuelako, baina hala ere, banekien itzuliko nintzela. Esan nien nire semea eskubaloian jokatzen hasten zenean sartuko nintzela berriz ere klubean, eta hala izan zen. Semea Sanlon sartu zenean, delegatu lanetan hasi nintzen. Gero, entrenatzaileak falta zirela ikusi nuen, eta ordurako titulazioa aterata neukanez, infantilak entrenatzen hasi nintzen. Pare bat urte geroago, senior gizonezkoen bigarren taldea entrenatzen



hasi nintzen. Ondoren, lurralde mailako entrenatzaile izateko titulua atera nuen, eta orain dela bi urte, nazional mailako entrenatzaile izatekoa. Vuchy-rekin hasi nintzen Alcortan, eta orain ni naiz entrenatzailea. Buru-belarri sartuta nago Sanlon, eta ez ni bakarrik, familia guztia gaude klubean sartuta. Bi semeak eta alaba jokatzen, emaztea delegatu, eta ni entrenatzaile. Gure asteburuak eskubaloari lotutakoak izaten dira, baina gustura ibiltzen gara, asko gustatzen zaigu eta gozatu egiten dugu.

◆ Jokalari moduan hasi zinen, eta orain entrenatzaile ari zara. Eskubaloia bizitzeko bi ikuspegi.

Bai, bi ikuspegi oso desberdin. Orain, entrenatzaile naizela, ikusten ditut gauza pila bat jokalaria nintzenean ikusten ez nituenak, edo behintzat, ulertzen ez nituenak. Irizpide desberdinak ditugu jokalaria eta entrenatzaileok gauzak ikusteko eta ulertzeko. Jokalariet jokatze eta egiteko grina handia izaten dute, eta entrenatzaile moduan, entrenamenduek bestelako garrantzia bat dute. Planifikazioa oso garrantzitsua da, eta entrenamenduetan gai asko lantzen dira. Jokalari izan izanak jokalaria ulertzeko perspektiba ere ematen dit: jokalaria animoz nola dauden ulertzen laguntzen dit, eta horren arabera badakit bakoitzari zer eskatu diezaiekedan. Entrenatzaileok askotan psikologo lanak ere egin behar izaten ditugu, eta beraien lekutik pasatutakoa naizenez, hobeto ulertzen ditut.

♦ **Sanloko senior gizonetzkoen ardura daukazu orain, Vucinic-en lekukoa hartuta. Ez daukazu paper makala.**

Bai, Vucinic ordezkatzea bidean etorri den kontua izan da, horrela tokatu da. Bere laguntzaile lanetan jardun naiz azken urteetan, eta bera gaixotu zenean nik hartu nuen taldearen ardura. Baina Vuchy ordezkatzea ezinezkoa da. Eskubaloia buruz pila bat zekien, eta eskubaloia asko landu zuen. Sanlon sekulako lana egin zuen, egitura sendoa ezarri zuen eta maila guztietan taldeak sortzen saiatu zen. Jokatzan hasi zen Alcortan eta gero entrenatzaile. Mailaz igotzea lortu zuen taldeak bera jokalaria zela, eta entrenatzaile zenean maila hori mantentzen saiatu zen. Oso figura garrantzitsua izan da klubean, eta denok ikasi dugu asko bere ondoan. Bere heriotza gogorra izan zen. Gaixorik zegoen, bagenekien, baina hala ere oso ukituta geratu ginen denok. Kirol alorrean ere denboraldi gogorra izan zen iazkoa, eta asko sufritu genuen. Bere omenez, berak oparitu zidan Montenegroko selekzioko kamiseta jantzita irteten nintzen bera hil ondorengo partidetan, nolabait erakusteko berak bukatu zuela denboraldia. Garaipen bat eskaini nahi izan genion, baina esan bezala, iazko emaitzak ez ziren onak izan eta ez genuen partida bat bera ere irabazi bera hil ondoren. Aurtengoak eskainiko dizkiogu, eta mailaz igotzea lortuko bagenu, hori izango litzateke beretzako omenaldirik onena. Niretzako laguntza handia zen Vuchy, bere aholkuak, bere jakintza oso beharrezkoak izan dira niretzat, baina Vuchyk bere egiteko modua zeukan, bere estiloa, eta nik nirea.

♦ **Denboraldia ondo hasi duzue. Zein da aurtengorako helburua?**

Helburu nagusia igoera faserako sailkatzea da, baina horrez

“Baloreetan oinarrituta egiten dugu lan, eta besteak beste, konpromisoa, talde-lana, kiroltasuna eta laguntasuna lantzen ditugu”

gain taldea sendotzea eta jokalarien animo eta ilusioa berreskuratzeke helburua ere jarri genuen. Azken urteetan lehen nazional mailan jokatzan egon dira, eta azken bi denboraldiak txarrak izan dira emaitzei dagokienean. Covid-ak ere ez du batere lagundu: Konfinamenduak izan genituen, jokalaria batzuk lan kontuegatik taldea utzi behar izan zuten... Horrek guztiak izugarri eragin du jokariengan, eta nire nahia izan da berriz bloke sendo bat sortzea. Horretarako, jokalaria gazteez gain, beterano batzuk ere fitxatu ditugu, eta taldea askoz hobeto dago. Taldean erreferente batzuk edukitzea oso garrantzitsua da. Beteranoek asko laguntzen dute, bai niri eta baita jokariei ere, eta hori igartzen da. Lehen fasean hamar partidatetik, denak irabazi ditugu, eta alde horretatik oso pozik gaude. Gure helburua lortzeko taldea badaukagu, eta nik uste dut lortuko dugula.

♦ **Senior gizonetzkoen bi talde ditu Sanloko. Elgoibar bezalako herri batentzat lorpen handia da hori, ezta?**

Bai, hirietan eta herri handietan horrelakoak normalak dira, baina tamaina honetako herrietan ez da oso ohikoa. Talde bat bestearen osagarri da. Talde nagusiari jokalaririk falta zaizkionean bigarren taldeko jokalariren batzuk etortzen dira eta guretzako onuragarria da.

♦ **Eskubaloiak Elgoibarren arrakasta handia dauka. Zein da horren arrazoia?**

Eskubaloia erreferente bihurtu da Elgoibarren, eta nik uste dut elgoibartarrek gustuko duten kirola dela. Jende guztia ezin da futboleant sartu. Lehen gehienak futboleant hasten ziren, eta futbolerako balio ez zutenak etortzen ziren eskubaloira, baina orain jende askoren lehen aukera da eskubaloia. Nik





uste dut jendea konturatu dela eskubaloiak aukera zabalak dituela eta orain futbolaren aurretik aukeratzen dute askok. Lan handia egin du Sanlok Elgoibarren, oinarritik landu du eskubaloia maila guztietako jokalariekin eta horrek ekarri du eskubaloiairen arrakasta.

◆ **Talde bateko kide izateak konpromisoa eskatzen du. Nola lortzen da hori afizionatuetan?**

Covid garaian konpromisoak behera egin zuen. laz lau konfinamendu izan genituen taldean, 40 egun konfinatuta, eta hori oso gogorra egin zitzaigun. Baina bestela, jokalariek serio hartzen dute eskubaloia. Hasieratik eskatzen zaie konpromisoa, eta betetzen dute. Normalean hutsegiteak arrazoi-tuak izaten dira, eta zentzu horretan pozik gaude. Lehen nazional mailan jokatzeko genuenean ezagutu genituen soldata jasotzen zuten taldeak, eta harritu egiten ziren guk ez genuelako kobratzen. Eraitza onak eta talde giroak laguntzen du konpromiso horretan; gauzak ondo doazenean dena errazagoa da. Sanloren barruan konpromisoa ezinbestekoa da, bestela honek ez luke funtzionatuko. Klubeko kide guztion arteko elkarlanean oinarritzen da Sanlo. Zuzendaritza, gurasoak, entrenatzaileak, jokariak... Sanlok lan handia eskatzen du, eta gutxi batzuen artean eramatea dena ezinezkoa da, baina baikoitzak apur bat eginez gero, denon artean, lanak aurrera ateratzen dira. Sanlon sartzen denak badaki non sartzen den, eta konprometituta etortzen da jendea. Baloreetan oinarrituta egiten dugu lan, eta besteak beste, konpromisoa, talde-lana, kiroltasuna edo laguntasuna lantzen ditugu, eta horrek guztiak egiten du posible Sanlo.

◆ **Eskubaloian jokatzeko hasi zinetik urte asko pasatu dira. Nola aldatu da eskubaloia urte horietan?**

Izugarri aldatu da dena. Ni Sanlora iritsi nintzenean kadete eta jubeniletan ondo egiten zen lan, baina seniorretan ez zegoen seriotasun askorik. Irtsi zen seniorretan ere eskubaloia serio hartzeko momentua, eta batzuk kluba utzi zuten, ez zutelako bat egiten filosofia horrekin. Gaur egun egitura guztian seriotasun handia dago, entrenatzaile guztiak tituludunak gara, eta seriotasun hori igartzen da klubean. Azken batean, denontzako da onura. Jokoa bera ere desberdina da, eta ez dauka garai batean jokatzeko genuen moduarekin zerikusirik. Gaur egun defentsa aktiboa bilatzen dugu; defentsa gogorra eta kontra-eraso azkarrak. Alcortaren jokatzeko modua asko aldatu da azken hiru-lau urteotan, eta joko mota hori txikitatik erakusten saiatzen gara jokalariei, etorkizunerako prestatzeko.

◆ **Kiroldagiko harmailak ikusleztan beteta egoten dira. Nola bizi dituzu partidak?**

Covidaren ondorioz publikorik gabe jokatzeko aritu ginen iaz, eta ez dauka zerikusirik. Publikoak une jakin batzuetan jokalarien animoak igotzen ditu, eta horrek laguntzen du partidak irabazten. Harmailak topera daudenean gozatzen dugu gehien.

ALCORTA TALDEAREN HISTORIKOA

Sanlok 17 eskubaloia talde ditu, emakumezkoenak 11 eta gizonezkoenak sei. Guztira, 280 jokalaria ditu klubak aurten, eskubaloia eskola kontuan hartuta. Jarraian duzue Alcorta senior gizonezkoen taldearen garapena.

- 2006-2007: Tecnifuelle senior gizonezkoen taldea Lehen Nazional mailara igo ostean, taldea desegin zen. Denboraldi bat egon zen Sanlo senior gizonezkoen talderik gabe.
- 2008-2009: Senior gizonezkoen taldea sortu zuten berriro. Gipuzkoako Bigarren Lurraldeko mailan hasi zen, eskubaloiko mailarik apalenean, Juanma Lopez entrenatzaile zela. Alcortaren babesletza lortu zuten urte hartan eta ordutik hartu du izena. Partida bat bera ere galdu gabe, mailaz igotzea lortu zuten.
- 2009-2010: Gipuzkoako Lehen Lurraldeko mailan, bigarren bukatu zuten liga. Mailaz igotzeko fasea jokatu zuten, baina ez zuten igotzerik lortu.
- 2010-2011: Gipuzkoako Lehen Lurraldeko mailan, hirugarren postuan amaitu zuten. Igoera fasea jokatu, eta mailaz igo ziren.
- 2011-2012: Bigarren Nazional mailan (Euskal ligan), bigarren postuan amaitu zuten denboraldia. Denboraldi horretan iritsi zen Vucinic, atezain postura. Elgoibarren jokatu zuten igoera fasea, eta bigarren egin zuten, La Garriga talde katalanaren atzetik. Bigarren postu horri esker, beste igoera fase bat jokatzeko aukera izan zuen taldeak, eta orduan bai, Lehen Nazional mailara igo ziren. 2020-2021 denboraldira arte eutsi zion mailari, eta ibilbide horretan bi Gipuzkoako kopa irabazi zituzten, eta beste bitan azpi txapeladun izan ziren.
- 2019-2020: Covid-a dela eta, ez zen talderik jaitsi lehen maila nazionaletik eta horri esker eutsi zioten mailari.
- 2020-2021: Apirilaren 14an hil zen Vucinic minbizia- ren ondorioz, eta Zigor Esnaolak hartu zuen taldearen ardura. Ez zuten lortu mailari eustea.
- 2021-2022: Bigarren Nazional mailan (Euskal ligan) dabil taldea, Zigor Esnaolaren gidaritzapean. Lehen fasean dena irabazi ostean, bigarren faseari ekin diote, igoera fasera sailkatzeko helburuarekin.



Iker Izeta, Zigor Esnaola eta Sergio Echeverria.

Ilusioa berreskuratuta, etorkizuna itxaropentsu

Iker Izeta (Elgoibar, 1990) eta Sergio Echeverria (Eibar, 1996) Alcorta Forging Group taldeko bi kapitain dira. Gazteak dira, baina aldi berean, veteranoak. Hiru kapitain ditu berez taldeak, baina lan kontuegatik atzerrian dabil haietako bat, eta une honetan bi daude. Beraien eginbehar nagusia zubilanak egitea da jokalarien eta entrenatzailearen artean, eta baita zuzendaritzarekin. Taldean giro ona egotea ere beraien arduren artean dago.

Iker Izetak 31 urte ditu. Kadeteetan hasi zen Sanlon jokatzen, 14 bat urterekin, eta iaz arte jardun zuen jokalaria. Hiru igoera ezagutu ditu bere ibilbidean, eta jaitsierarik ez du bizi izan barrutik, baina taldeak maila galdu izanak pena eman dio, azken batean, bere sentitzen duelako taldea. Iazko denboraldian etenaldi bat egin zuen, eta aurten berriz itzuli da taldera. Taldea laga zuenean ere bera zen kapitainetako bat, eta aurtengoan berriz ere eman diote ardura hori, Sergio Echeverriarekin batera. Echeverria eibartarra da, eta 25 urte ditu. Eibartik ezagutzen zuen Gojko Vucinic eta haren bitartez iritsi zen Sanlora. "Nire amaren koadrilakoa zen Vuchy eta behin galdetu nion ea Sanlon pibote batentzat lekurik bazegoen. Baietz esan zidan, eta halaxe hasi nintzen hemen jokatzen". Zortzi denboraldi pasatu dira ordutik. "Eibartarra izan arren, oso ondo hartu naute taldean", esan du txantxetan, taldean duten giro onaren adibide.

Eta, giro onak, emaitza onak ekartzen ditu askotan atzetik, eta oraingoan ere halaxe izan da. Denboraldiko lehen fasean partida denak irabazi dituzte, baina bigarren fasea ez dute oso ondo hasi, lehenengo partida galdu egin zuten-eta. Hala ere, Echeverriak esan duen bezala kirolean gauzak ez dira izaten hasten diren moduan, baizik eta bukatzen diren moduan. Igoera fasea jokatu eta mailaz igotzea sekulakoa izango litzatekeela uste du: "Lehenengo igoera fasetik hamar urte pasatu dira eta polita izango litzateke hamargarren urteurrenean berriz igotzea". Izetak gogorarazi du giro on hori eta taldearen ilusioa berreskuratzea zela aurtengo denboraldirako helburuetako bat, eta lehenengo faseko emaitzek hortan lagundu dutela: "Azken bi urteak oso txarrak izan dira, eta iaz maila galdu zuen taldeak. Orain ilusioz gaude berrir". Eche-

verriak ere bat egin du ideia horrekin: "azken urteetan jaitsieraren mamua izan dugu gainean, eta hori gogorra da. Orain dela bi urteko denboraldia koronabirusagatik salbatu genuen, baina iazkoa ezin izan zen salbatu". Orain baina, ilusioa berreskuratuta, baikor ikusten dute etorkizuna. Konprometituta eta serio ari dira denak: "Gogotsu gaude, eta igoera fasea jokatzerara behintzat iritsiko garela uste dugu", esan dute.

Vucinic gogoan

Izetak taldekide izan zuen lehenik Vucinic Alcorta taldean, eta ondoren entrenatzaile. 2011-12 denboraldian iritsi zen Vucinic Sanlora, Arrate desagertu zenean. Bi urtez jokatu zuten elkarrekin, eta mailaz igotzea lortu zuten: "Sekulakoa izan zen hura, ahaztezina", esan du Izetak. Jokalari profesionala izan zela igartzen zitzaioela nabarmendu du: "Atea bete egiten zuen, oso ondo kolokatzen zen. Horrez gain, sekulako lasaitasuna transmititzen zion taldeari, eta jarrera oso ona zeukan. Jokoa ikusgarria zen. Orain dela hamar urteko igoera faseko partida batzuk berak irabazi zituen!". Talde hartako oso oroitzapen onak ditu, talde giro "bikaina" zutela esan du, eta horrek ere lagundu zuela mailaz igotzen uste du: "Hamar urte beteko dira aurten igoera hartatik, eta aitzakia ona izan daiteke juntadizoren bat edo egiteko". Gero entrenatzaile izatera pasatu zen, eta Vuchyrekin asko ikasi zuela esan du.

Echeverria Alcortara iritsi zenerako Vucinic entrenatzailea zen. Arrate eskubalo klubean ere izan zuten harremana, eta berarentzat entrenatzaile izateaz gain, laguna ere bazela aitortu du Echeverriak: "oso gertukoa nuen".



Etxegabeentzako aterpea

Eibarko karmeldarren elizan (Karmen kalean) kokatzen den neguko aterpeak abenduaren 1ean ireki zituen ateak, eskualdeko etxegabeei zerbitzua eskaintzeko asmoz. Ohea, higiene pertsonala, arropa garbitzeko aukera eta jatekoa ematen diete erabiltzaileei urteko hilabeterik hotzenetan (apirilaren 15era arte), hainbat urtetan faltan izan den behar bati erantzuna emanez.

DKT (DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA)

Debabarreneko Gipuzkoako udalek, hau da, Debak, Eibarrek, Elgoibarrek, Mendarok, Mutrikuk eta Sorluzek, neguko dispositiboa jarri dute martxan etxegabeei ostatu emateko. Iraganean zenbait saiakera egin dira horrelako zerbitzuak eskaintzeko, baina orain arte ez dute proiektu komunikagaratu ahal izan eta pozik daude egitasmo honek izan duen harrerarekin.

Idoia Sarasketa Eibarko Udaleko Gizartekintza saileko arduradun politikoak dioenez, "gai horretan eskualdea zorretan zegoen", nahiz eta azken urteotan zenbait proposamen eta ekintza egin diren. "Orain dela hiru urte neguko aterpea ireki genuen Eibarko Azitain kalean dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan, baina ikusi genuen ez zela tokirik egokiena. Iaz, Matxaria kalean Udalak dituen etxebizitza batzuetan eta Untzaga Hotelean aterpe zerbitzua eskaini genuen; eta,

pandemia hasi zenean, Deban dagoen Santiago Bideko ostalua etxegabeentzako ireki zuten", azaldu digu zinegotziak. "Debabarrena osoari ematen zitzaion zerbitzua, baina ez zegoen toki askorik. Ekintza puntualak izan ziren, protokoloa 3 gradutik jaisten zen egunetan aktibatzen zen", gehitzen du.

Salbuespenetik harago joan eta beharrari erantzun integrala emateko asmoz, aterpea Eibarko karmeldarren elizan ezartzeko aukera sortu zen eta erlijiosoen parez pare ireki zituzten ateak proposamenari, instalazioak doan eskainiz. "Asko eskertzen diegu keinua eta, gauzak ondo, akordioa urte gehiagorako luzatzeko aukera izango dugu", diosku Sarasketak. Momentuz aterpea ez da urte osoan zehar egongo zabalik, neguan bakarrik, baina eskualdeko udalen zorra arintzeko balio izango du eta Sarasketak esan digunez erakundeak "harro" daude lortutakoarekin.

Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten karmeldarren elizan dagoen aterpetxean

14 plaza arrunt

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt ditu gaua non pasatu ez dutenentzat. Zerbitzua jaso nahi dutenak eskualdeko udalako gizarte zerbitzuekin, gizarte hezitzaileekin, Gurutze Gorriarekin, Osakidetzarekin, Caritasekin, udaltzainekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jarri behar dira, eta egunero erabiltzaileen zerrenda bat osatzen du Eibarko Udaltzaingoak. 20:00etan amaitzen da izena emateko epea, baina norbait beranduago agertzen bada

eta plazaren bat libre bada, sartzeko aukera izaten du. Horrela, erabiltzaileek gaua pasatzeko aukera izaten dute, hilean bost aldiz gehienez.

Azken egunetan bezala hotz handia egiten duenean, sei plaza gehiago jartzen dituzte eskuragarri. Gainera, egonaldi ertaineko beste lau plaza daude, "baina plaza hauek lortzeko gizarte langileek erabiltzaileen txostena egin behar dute eta erabiltzaileek euren bizitza bideratzeko konpromisoa hartu behar dute", azaldu digu Sarasketak.

Plaza arrunt bat lortzeko baldintza hauek bete behar dira: norberaren higienerari eta zentroko higienerari buruz langileek emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea, jokabide-nahasterik ez edukitzea edo bertako elkarbizitza normala larriki nahas dezakeen portaerarik ez izatea, ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisiko edo psikologikorik ez edukitzea, eta zerbitzuak eskaini ahal ezin dituen



Sukaldari batek afariak eta gosariak prestatzen ditu aterpetzeko erabiltzaileentzat. EKHI BELAR



Logela gehienetan bi ohe eta komuna daude, baina badago sei ohe dituen logela familiarra baita ere. EKHI BELAR

osasan-laguntza espezializatu beharra ez edukitzea. Gainera, bizikidetzak egokia izateko zenbait arau jarraitu behar dituzte.

Aterpearen funtzionamendua

Aterpetxeak 20:00etan irekitzen ditu ateak goizeko 10:00ak arte, eta atea gurutzatu bezain laster teknikariek harrera egiten diete erabiltzaileei. Erabiltzaileek COVID protokoloa bete behar dute une oro eta sarrean armairu batzuk dituzte euren gauzak lagatzeko.

Eskailerak igotzean (igogailua ere badago) jangela, sukaldaria, garbiketarako gela eta logelak aurkitu ditzakete, eta balkoi-ira irteteko aukera dute nahi izanez gero. "Logelak bi ohekoak dira, komunarekin, baina behar izanez gero sei oheko logela familiarra ere badago", esan digu Sarasketak.

Erabiltzaileak bi integratzaile eta hezitzaile baten begiradapean daude aterpetxean, eta euren beharrei erantzuna ematen saiatzeaz gain, arazoak ekiditeko edo konpontzeko daude.

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt, sei plaza hotz handia egiten duen egunetarako eta egonaldi ertaineko lau plaza ditu

Horrez gain, sukaldari batek afaria eta gosaria prestatzen ditu, eta garbitzaile bat dago.

Eskaerak gora urtarrilean

Aterpea zabaldu zutenean, abenduaren lehen astean, ez zuten erabiltzailerik jaso, baina handik aurrera jendea etortzen hasi zen. "Horrelako kasuetan ahoz ahokoak funtzionatzen du, jendeak horrela izan du batez ere zerbitzuaren berri", diosku Sarasketak. Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten eta, batez beste, per-

tsona bakoitzak bi gau egin zituen. Abenduan, erabiltzaile gehien egon ziren egunetan sei lagun elkartu ziren, baina urtarrilean hotz gehiago egin du eta egun batzuetan 11 lagun elkartu izan dira.

Zinogotziak esan digunaren arabera, hara eta hona dabilen jendea etortzen da aterpetxera, horrelako zerbitzuak hilean bost aldiz erabili ahal izaten dituztelako gehienez eskualde guztietan. Horrela, jatorri ezberdinetako jendea elkartzen da, baina euren arteko bizikidetzak ona dela esan digu Sarasketak. "Gainera, orain dela gutxi emakume bat izan dugu, nahiko gauza arraroa dena, eta ez da inongo bizikidetzak arazorik egon", dioenez.

Erakundeak pozik daude aterpetxearen egitasmoak izan duen harrerarekin eta eskaintzen duen zerbitzuarekin, eta datorren hilabetearen eskualdeko udal-teknikariak aterpetxean elkartuko dira bere funtzionamendua gertutik ezagutzeko. "Gainera, herritarrentzat ateak ireki nahi ditugu ondoren, gaia ondo ezagutzeko eta kontzientzia hartzeko", amaitu du zinogotziak.

Gaztiak, eskarmentu gutxi:
Gazteari esperientzia falta zaiola adierazteko.

Niala magoak 'Mundu ezberdin bat' ikuskizuna estreinatuko du

Elgoibarko Niala magoak, otsailaren 4an, 19:00etan, Herriko Antzokian ikuskizun berria estreinatuko du *Mundu ezberdin bat* ikuskizuna. Orain artean jende gutxi inguruetan (umeentzako saioetan, bazkarien bueltan, areto txikietan) aritu da magia ikuskizunak egiten eta bi urtez prestatzen jardun ondoren, taula handi baten gainera igoko da, areto handian, herritarrei bere trukoak eskaintzera. Askotariko tresnak erabiliz ikusleak harriztea da bere asmoa eta ohiko kartez gain, txanponak, rubik kuboak zein marrazkiak erabiliko ditu besteak beste. Beretzako saio berezia izango da herrian eta horrelako toki batean antzeztea polita izango dela uste duelako. Baina dena ondo ateratzeko publikoaren laguntza ere eskatuko du, beraz, elkarrekintza ezinbestekoa izango da. Magia ikuskizun asko maiz umeentzako egin baditu ere, ikuskizun hau publiko helduari zuzendutakoa da bere magia eta artea denen aurrean agertzeko gogoz eta ilusioz baitago.



Martxoaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira euskarazko idazlan lehiaketako lanak

Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez, 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeentzako idazlan lehiaketa antolatuta du. Ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea du helburu. Gaia librea izango da baina euskaraz idatzitakoa, jatorrizkoa, aurrez saritu gabea eta argitaratu gabea izan behar da. Lanak ordenagailuz idatzi behar dira LH3 eta LH4 mailetan salbu, hauen kasuan, eskuz. Idazlanak bakoitzak bere gelan aurkeztu behar ditu (3 kopia) eta azken eguna 2022ko martxoaren 11 izango da. Elgoibartik kanpo ikasten ari diren ikasleek HAZen entregatu behar dituzte lanak 7:30etik 15:30era bitartean. Guztira 26 sari banatuko dituzte: 50 eta 120 euro bitarteko bonoak herriko dendetan erabiltzeko.

Aurten ere ez dute Santa Ageda eskerik egingo Elgoibarko baserrietan

Elgoibarko Iza-rako Santa Ageda taldeak jakinarazi dutenez, aurten ere ez dira joango otsailaren 4an baserri kantuan eta eskean pandemia dela-eta. Iaz kale egin ostean, aur-



ten ohitura zaharrari berriz eusteko moduan izango zirela uste zuten, baina osasun egoerak mugak ipini dizkie baserrietara joateko eta taldekoen zein baserrietako bizilagunen osasunari eman diete lehentasuna. Egoerak hobera eginez gero, datoren urtean berriz ere itzuliko dira baserri atarrietara kopla kantuan trikitixaren laguntzaz, izan ere, baserriarrek gogoz hartzen dute egindako jarduna, baita propinarekin estimatu ere.

Korrikarako laguntzaile-txartelak eta arropa salgai

Korrika 22 apirilaren 1ean iritsiko da Elgoibarrera eta oraindik bi hilabete falta badira ere AEK euskaltegian hasi dira lanean. Bi bide prest daude jadanik laguntzeko: Korri-



karako arropa erostea edo Korrika-laguntzaile txartela egitea (12 euroren truke). Azken honekin, laguntzailea izateaz gain, astero egiten diren zozketetan parte hartu ahal izango da. Arropa erosteko zein laguntzaile egiteko, honako bideak erabil daitezke: AEK euskaltegian bertan (Gabriel Kurutzelategi, 10) asteleheneetik ostiralera 16:00etatik 18:00etara; elgoibar@aek.eus e-posta helbidera mezua idatzita edota 607 601 423 telefono zenbakira deituta.

Euskaraz bizi diren herriko familiak behar dituzte 'Euskarara Hurbiltzen' egitasmoan parte hartzeko

Elgoibarren abian da *Euskarara hurbiltzen* egitasmoa. Herrira etorri berri diren familiei harrera egitea du helburu, herriko beste familiekin harremanak sustatuz, kulturartekotasuna eta hizkuntza aniztasuna aitortuz eta elkarbizitza berdintasunean erakiz, betiere euskara erdigunean jarriz. Etorri berriekin ezezik euskaratik urrun dauden familiekin ere lan egin nahi dute, bereziki, euren seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskarazko aisia eta kultura eskaintza eskura jartzeko. Egitasmoa abian da, bai, baina euskaratik hurbil dauden familiak, euskaraz bizi direnak, behar dituzte denen arteko harremanak parekatzeko. Beraz, ekimena bultzatu duten Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskaltzaleen Topaguneak, Elgoibarko Izarra eta herriko ikastetxeek familia horietako kideak animatu nahi dituzte izena ematera.

Jarduerak eta helburuak

Familiak dinamizatzailer batekin bilduko dira saio gidatuak egiteko modu ludikoan. Era berean, saio horietatik kanpo harremanak saretuz elkarrekin gelditzera ere animatuko dituzte. Horrela, euskaratik urrun daudenak piskanaka euskarara erakartzea izango da helburuetariko bat, jarrera baikorra sustatuz eta euskara ikastera animatuz. Familiei inklusioan laguntzea eta



kultura eta hizkuntza aniztasuna bultzatzea ere bada asmoa. Horrez gain nahi dute herritarren parte-hartze publiko eta aktiboa eta familien arteko elkarlan boluntarioa bultzatzea, euskararen eta herriko beste hizkuntzen artean zubiak eraikitzea, elkarbizitzarako gune parte-hartzaileak sortzea eta euskal hiztunak zein etorri berriak hizkuntza aniztasunaren aberastasunaz jabetzea. Oraindik izena emateko aukera dago, batik bat euskaraz bizi diren familiak behar dituztela kontuan hartuta. Izena emateko zein informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrara deitu (943 74 16 26) edo webgunera sartu (<http://www.elgoibarkoizarra.eus/albisteak/eman-izena-hurbiltzen-egitasmoan>).

Filatelia elkartekoek eta dultzaineroek ospakizuna egin zuten zapatuan

Altzolatarrren Dorretxea filatelia elkartekoek aurtengo erakusketa amaitu eta zigilu bildumagileei ezezik Elgoibarko Dultzainero Taldekoei omenaldia egin zieten zapatuan Kultur Etxeko sotoan. Kalejiran Kultur Etxerako bidea egin eta ekitaldian elkarri eskerrak emanez hitz egin zuten. Dultzaineroak jaiekin lotzen



ditugu eta dilatelikoek ere beren jai egunarekin bat egin zituzten. Txomin Mujika dultzaineroak esan zuen, beren 50. urteurrena dela azaldu aurretik filatelia taldekoei omenaldi proposamena egin zietela eta pozik hartu zutela, urteurrena hasteko modu polita delako.

Kirol-apustuei eta ausazko jokoei buruzko hitzaldi elebiduna, otsailaren 7an

Foru Aldundiko Treba Gurasoak ekimenak nerabeen gurasoentzako *Kirol-apustuak eta ausazko jokoen*: zer egin dezake familiak? hitzaldi elebiduna antolatu du datorren otsailaren 7rako. 17:30ean izango da, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan, doan. Hitzaldiko trebatzailea Estibaliz Ansotegi psikologoa izango da, eta besteak beste, kirol-apustuek eta ausazko jokoen nerabeengan sor ditzakeen arazoengatik inguruan hitz egingo du. Sarrerak www.labur.eus/Otsailak7 webgunean eskuratu daitezke. Datozen hila beteetarako eskola jazarpenari, substantzien kontsumoari eta gurasoen banaketari buruzko hitzaldiak iragarri dituzte.



Euskal Ligako bigarren faserako sailkatzea lotu du CIMDEk, eta sailkatzeko atarian gelditu da Deca

Euskal Ligako bigarren fasean aritzeko promozio faseak jokatu zituzten jubenil mailako zortzi eskubaloi taldek, aurreko asteburuan, Elgoibarren. Olaizaga kiroldegian aritu ziren neskak eta IMH kiroldegian mutilak. Nesken promozio fasean etxeko taldea gailendu zen, jokatutako hiru partidak irabazi baitzituen CIMDE Sanlok. Barikuan jokatuzuten lehen partidari, CIMDEk 36-12 irabazi zion Muskizi. Zapatuan partida estuagoa jokatu zuen, eta gol bakarreko aldeaz irabazi zion Oñatiko Aloña Mendi taldeari, 26-27. Hala, gainerako taldeek lortutako emaitzak kontuan hartuta, fasean gailentzeko berdinketa bat nahikoa zuen CIMDEk azken partidari. Aldiz, aurkariak, San Adrian taldeak zazpi goleko errenta behar zuen lehen postua eskuratu eta hurrengo faserako sailkatzeko. Parez pare aritu ziren bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, eta bata zein bestea markagailuan alde nabarmenik hartu ezinda ibili ziren. Atsedendaldira 15nako berdinketarekin iritsi ziren, eta bigarren zatian ere bide beretik joan ziren gauzak. Hala, ez zen emoziorik falta izan azken jokaldira arte eta gol bateko aldeaz irabazi ziteen partida etxekoek (27-26).

Bi partida irabazi arren, saririk gabe

Jubenil mutilen Deca taldea saririk gabe gelditu zen, bi partida irabazi zituen arren. Zumaiako Creados Pulpo taldearen aurka jokatuzuten lehen partidako emaitza erabakigarria izan zen. Emozioz beteriko partida jokatu zuten, eta IMHko harmailetan ez zen nabari kanpoan egiten zuen hotzik, zaleak bero-bero jarri baitzituen bi taldeen arteko neurteta estuak. Zumaiarrak ibili ziren aurrea hartuta markagailuan, baina Decakoek hainbatetan berdindu zuten partida. Azken txanpan, baina, abantaila txiki bat lortu zuten Pulpokoek eta amaierara arte eutsi zioten. 25-27 izan zen azken emaitza. Esan bezala, Decak irabazi egin zituzten hurrengo bi partidak: 40-23 Beltzagorri Santutxuren aurka, eta 30-33 Trapagarenen aurka; baina, Pulpok ere irabazi egin zituzten gelditzen zitzaizkion neurtetak, eta hala, jokatutako hiru partidak irabazita, Euskal Ligako bigarren faserako sailkatzea lortu zuten zumaiarrek.



Denboraldiko lehen partida galdu ostean, Touring liderraren bisita jasoko du Haundik



Ligan partidarik galtzea zer den ez zekien talde bakarra Haundi zela nabarmendu genuen aurreko astean orriotan; bada etorri da lehen porrot hori. Mondrak 1-0 irabazi zion Haundiri, zapatuan Arrasaten jokaturako neurketan. Iker Sanchezek sartu zuen etxekoan gola, 82. minutuan. C.D. Elgoibarreko talde nagusiak zauriak sendatzeko partida aproposa jokatu du zapatu honetan Mintxetan, Ohorezko Erregional Mailako liderra den Touring taldea izango baitute aurkari, 16:30ean hasiko den neurketan. Erreterriako futbol taldeak 39 puntu ditu sailkapenean, eta bigarren dagoen Haundik 35. Hortaz, lidertzara hurbiltzeko hiru puntu garrantzitsu izango ditu jokoan Pablo Turrillasen taldeak. Sailkapeneko hirugarren postuan dagoen Eibar (35 puntu) eta laugarrenean dagoen Mondra (31 puntu) taldeekiko aldea handitzeko ere partida garrantzitsua izango da.

2023ko Frantziako Tourra Debabarrenetik pasako da



Datorren urteko Frantziako Tourra Euskal Herrian hasiko da eta Debabarrenetik pasatuko da. Bilbon hasiko da uztailaren 1ean, eta 185 kilometro egin eta gero Bilbon bertan amaituko da lehen etapa. Bigarren etapa Gasteizen hasiko da eta, 210 kilometro egin ostean, Donostian amaituko da, helmuga aurretik Jaizkibel igo ondoren. Hirugarren etapak Zornotzan izango du hasiera eta oraindik ez dute esan zein izango den amaierako tokia, baina zenbait hedabidek aurreratu dutenez Baionan amaituko da. Dena dela, ofizialki esan dutena da lasterketa Debabarrenetik pasako dela hirugarren egun horretan. Zornotzatik abiatu eta Durango zeharkatu ondoren, txirrindulariek Trabakua igo eta handik Markinara joko dute, kostaldera heldu arte. Ondoren, lasterketa ekialderantz joango da Mutriku eta Deba zeharkatuz eta Itziarrera igoz. Handik kostaldeko bidea jarraituko du, Irunera iritsi eta muga zeharkatu arte.

Emaitzak

FUTBOLA

Mondragon 1 – Haundi 0 (Oho. Erreg. Maila)
Oartzun 1 – Elgoibar 2 (Emakumeak)
Elgoibar 5 – Intxurre 1 (Erreg.)
Burumendi 0 – Elgoibar 5 (Ohorezko jub.)
Real Union 5 – Elgoibar 3 (Jub. 1. maila.)
Elgoibar 3 – Arrasate 1 (Kad.)
Elgoibar 3 – Goierri Gorri 2 (Kad. neskak)

ESKUBALOIA

CIMDE Elgoibar 36 – Muskiz (Promozio fasea)
Deca Elg. 25 – Pulpo 27 (Promozio fasea)
Aloña Mendi 26 – CIMDE 27 (Promozio fasea)
Deca 40 – Beltzagorri Santutxu 23 (Promozioa)
CIMDE Elg 27 – C.B. San Adrian 26 (Promozioa)
Trapagaran 30 – Deca 33 (Promozioa)
Arlan Elg. 35 – Legazpi 21 (Senior, neska.)
Alcorta F.G. 29 – Amenabar Zarautz 16 (Sen. giz.)
Gaurve Asesores 24 – Kukullaga 21 (Sen. em.)
Pizzeria Salento 26 – Egia 21 (Sen. giz.)

Agenda

ESKUBALOIA (Olaizagan)

Zapatua, 29
10:00 Zubacor Elg. – Pulpo (Inf. mut.)
11:30 Tecnifuellei – Aiala Zarautz (Inf. neska.)
13:00 Neurri Elg. – Urnieta K.E. (Kad. neska.)
17:45 Bankoa Elg. – Leizaran (Jub. neska.)
19:30 Deca Elg. – Bidasoa Irun (Jub. mut.)
Domeka, 30
15:30 Elgoibar – Astigarragako Mundarro (Emakumeak, nagusiak)
17:45 Elgoibar – Amaikak Bat (Ohorezko jub.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 29
11:00 Elgoibar – Antzuola (Inf. Txuria)
16:30 Haundi – Touring (Oho. Erreg.)
18:30 Elgoibar – Internacional (1. mailako jub.)
Domeka, 30
15:30 Elgoibar – Astigarragako Mundarro (Emakumeak, nagusiak)
17:45 Elgoibar – Amaikak Bat (Ohorezko jub.)

Modelos Modelberri, lider

Gipuzkoako Hirugarren Mailan lehiatzen diharduen Modelos Modelberri saskibaloia taldea bere multzoko lehen postuan dago, 18 punturekin. Mondragon Unibertsitatea taldea dago bigarren, elgoibartarrek baino puntu bat gutxiagorekin, baina jokatu ere, partida bat gutxiago jokatu du, koronabirus kasuegatik atzeratutako partidak direla-eta. Azken jardunaldian, hamargarrenean, elgoibartarrek 73-44 irabazi zioten Cafes Aitona taldeari Olaizagan. Asteburuan Andraitz taldearen aurka jokatu dute, Legazpian.

LANA.....

Eskaerak

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 202 116

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 642 716 984

Garbiketa lanetarako edo adinekoen zein umeen zaintzan lan egiteko prest nago. ☎ 691 313 505

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 229 408

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere bai. Malgutasuna daukat. ☎ 667 228 395

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat eta euskalduna naiz. Orduka. ☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 688 735 551

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat sukalde laguntzaile eta garbiketa lanetan. ☎ 602 379 575

Adinekoak ospitalean edo etxean zaintzeko prest nago. Profesionaltasun-ziurtagiria daukat. Orduka lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ 660 511 781

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen, etxeko garbiketa lanetan eta administrazioan. Administrazio Kudeaketan titulua naiz. ☎ 642 403 764

Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen eta etxeko garbiketa lanetan. ☎ 643 071 900

Asteburuetan eta jai egunetan lan egiteko prest nago. Orduka, eta gabez ere bai. Adinekoak zaintzen, sukaldean eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. ☎ 625 910 116

Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo beste edozein lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. Agiriak legez ditut, eta gidabaimena eta autoa ere baditut. ☎ 689 571 882

Arratsaldetan LHko eta DBHko eskola partikularrak emateko prest nago. Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza eta Psikologiako graduak ikasten ari naiz. ☎ 649 446 529

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita aste-bukaeretan ere. ☎ 631 425 686

Eskaintza

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu. Goizez eta arratsaldez. ☎ 676 298 561

GARAJEAK.....

104m²-ko garaje itxia alokatzen dut, Olatsope inguruan. Autokarabana gordetzeko eta pintore edo igeltseroentzako aproposa. ☎ 679 306 223

BESTELAKOAK.....

Loro baten bila ari gara. Urta-rrilaren 22 goizean galdu zen Urazandi auzoan. Yaco buztan gorri arrazako lora da. ☎ 680 704 396 / 619 815 403



Orbea Loopy umeentzako bizikleta salgai. 8-12 urtekoentzat, 24". Egoera onean. 60 euro. ☎ 600 798 602



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua</p>  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Nire komunitatean bizilagun gor-mutu bat bizi da. Segurtasun arazoak direla-eta bideo-atezaina instalatzea eskatu du. Nork ordaindu beharko luke instalazioa?</p> <p>Bizilagun gor-mutu baten irisgarritasuna bermatzeko bideo-atezaina instalatzea zentzumen bati lotutako ezintasun bati irtenbidea ematea da. Beraz, irisgarritasunari dagozkion neuriekin tratatu behar da. Irisgarritasun unibertsala inguruak, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektu, tresna edo gailuek bete behar dituzten baldintzen arabera da. Hori guztia pertsona guztiek modurik seguruenean, erosoenean, autonomoenean eta naturalenean erabili ahal dezaten. Beraz, irisgarritasunari dagokionez, diseinua denentzako izan behar da eta adostasun guztiak kalterik gabe hartu behar dira. Irisgarritasun lanak egiteko akordioak adosten direnean, komunitateak derrigorrez ordaindu beharko ditugustuak, nahiz eta urte bakoitzerako legez adostutako mugak gainditu.</p> <p>Aholkua: Legezko gehiengoak kontuan izanda erabakiak hartutakoan, jabe guztiek ordaindu beharko dute, nahiz eta instalazioaren kopurua legez ezarritakoa baino txikiagoa izan. Instalazioa derrigorrezkoa da eta jabe guztien artean banatu beharko da kostua. Legezko gehiengoak lortu ezean, komunitateak egin beharko du instalazioa, nahiz eta xafila orokorra aldatu behar izan.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Oihan**, gure mutil handi, zure 5. urtebetetzean. Gurasoen eta arreba Malenen partez.

Zorionak, **Bitor**, otsailaren 1ean 9 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat, etxeko denon partez. Asko maite zaitugu.

Zorionak, **Laia**, etxeko guztien, eta, bereziki, Ene-koren partez. 11 urte handi dagokenekol Muxu potolo bat.

Zorionak, **Alai**, atzo 3 urte bete zenituela ko! Patxo handi bat familiako guztien partez. Besar-kada potolo bat Elgoibarko iratxo-aren eta Pikupeko famauen partez.

Gaur mende erdi bete dozu. Disfrutatu topera, bizitza gaur da eta!

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Ongi etorri! gurean izena eman duzuen guztioi Eskerrik asko!

www.elgoibarikastola.eus 943 74 44 41 elgoibar@elgoibarikastola.eus

Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar

943 531 953 669 565 745

aldaz hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22 20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Eteabaria, 22 Eibar 677 551 850

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13 943 740 191 / 667 963 628 www.fisio-mas.com RPS 17712

RPS 183/12

Uzuri optika audio

Elgoibar Tel.: 943 740 359

Deba Tel.: 943 192 192

leku eder hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Eparantza, 5 20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10 Tel.: 943 743 734

28 BARIKUA

20:00 Elkarretaratzea: presoen eskubi-deen alde. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

20:30 Kontzertua: Ruper Ordorika. Herriko Antzokian.

29 ZAPATUA

12:00 Hitzaldia: 'Covid eta osasuna: txertaketa da bide bakarra?'. Iratzargailua taldeak antolatuta, Juanjo Martinez medikuak eskainiko du. Maalako parkean.

18:00 Dokumentala: 'Suharra, gure arbasoen ondarea'. Kultur Kafeak antolatuta, Aita Agirre kulturgunean.

18:30 Mendaroko ondare espeleologikoari buruzko hitzaldia. Leizarpek antolatuta, Evaristo Rodriguezek emango du. Mendaroko Trinitate elizan.

4 BARIKUA

19:00 Magia ikuskizuna: Niala magoa. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: www.herrikoantzokia.eus

19:00 Bideo foruma: 'La clienta'. Loredi Salegik gidatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'ETA HIK, ZER?' ANTZERKI-FORUMA, DEBAN, AGIRRE JAUREGIKO ISPILUEN GELAN OTSAILAK 3, 19:00ETAN

Indarkeriak gure egunerokotasunean zenbaterainoko eragina izan duen agerian uzten duen obra da, gure bizikidetzaren inguruko hausnarketa egitea bilatzen duena. Antzerkia euskaraz egingo dute, eta foruma ele bitan. Aurrez eman behar da izena (685 720 032).

Zinea (Herriko Antzokian)



'Mamá o papá'

29 zapatua: 19:00 / 22:15

30 domeka: 19:00

31 astelehena: 21:00

'Encanto'

30 domeka: 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

28 BARIKUA	29 ZAPATUA	30 DOMEKA	31 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



Merkealdia!

%25

- ★ Neguko izaretan
- ★ Sherpa edredoietan
- ★ Manta guztietan



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



I. URTEURRENA

Enrique Galán Jusue

2021eko urtarrilaren 29an hil zen, 43 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Elgoibarko lagunak eta familia



I. URTEURRENA

Maria Ines Arriola Zubiaurre

2021eko urtarrilaren 30ean hil zen, 89 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 30ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



VI. URTEURRENA

Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela.

Haren oroimenez VI. urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 30ean, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren Eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.**

Zure familia



Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

Xixilion, z/g. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)



Hileta-zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Espainiako Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 747 386

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete · Santurtzi · Leioa ·
Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda